

# Etxekoen begietatik

Urteak dira euskara normalizatzeko urratsak ematen ari dela justizia administrazioan. Gaur egungo egoeraz hausnarketa egin dute ARGIArako, EAeko Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako Normalizazio Arloko hainbat langilek .

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN euskara normalizatzeko politika, aurreko zenbait ekintza gorabehera, 1996an hasi zen, Eusko Jaurlaritzak justiziaren arloko funtzionarioen eta baliabide materialen eskumena jaso zuenean. Ordura arte euskarak ez zuen ia lekurik epaitegietan, ez ahozko harremanetan, ez agiri judizialetan, ez aplikazio informatikoetan. Euskararen erabilera normalizatzeko 1982an onartu zen Legeak justizia administrazioarekiko harremanetan herritarrek aukeratutako hizkuntza erabiltzeko eskubidea jasotzen zuen, euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriaren baliozkotasuna bermatzen zuen eta Jaurlaritzari euskara sustatzeko politika bat eskatzen zion, baina hizkuntza politika eraginkor bat egiteko baldintzarik ez zegoenez, eskubide horiek aitopen formalak besterik ez ziren.

Izan ere, justiziaren arloan daudden zailtasunak ez dira nolanahikoa. Giza baliabideetako eskumena transferituta dagoen arren, gogoan izan behar da funtzionarioak estatu mailako kidegoetan daudela antolatuta eta hizkuntza eskakizunak ezartzea oraingoz ezinezkoa dela. Gainerako eragile juridikoen kasuan (epaileak, fiskalak, idazkariak) egoera oraindik ere gordinagoa da eta gutxi dira euskaraz moldatzeko gai direnak. Bestalde, kidego horien ardura daukaten estatu mailako erakundeen jarrera ere ez da betiere



ALBERTO ELOSEGI

euskararen erabilera sustatzearen aldekoa izan.

Funtzionarioei buruzko eskumena jaso bezain laster hasi ziren lehen normalkuntza neurriak, besteak beste, funtzionarioen, karrera judizialeko eta fiskaleko kideen eta idazkari judizialen hizkuntza gaitasuna hobetzeko ikastaroak, Ministerioarekin eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin sinatutako hitzarmenen babespean. Bereziki aipagarria da 1996an bertan sortu zela agiri judizialak euskaraz normalizatu eta bateratzeko batzordea, gerora garrantzi handia izan duena, justiziaren arloan erabiltzen diren 20.000 inguru agiri aztertzeko lan eskerga baitu aurrean. Harrezkero lan handia egin da, orrialde hauetan nola edo hala laburbiltzen saiatuko garena.

## Hizkuntza prestakuntza

Alde batetik, euskarazko ohiko ikastaroak daude, bai funtzionarioentzat, bai epaile, fiskal eta idazkari judizialentzat, HABEren bitartez edo IVAPekin elkarlanean ematen direnak. Autoikaskuntzako metodologiak ere eman du fruiturik BOGA sistema multimedien bidez.

Ikastaro horiez gain, beste prestakuntza saio batzuk ere ematen dira barruti judizial guztietan. Astean behingo saio hauen xedea da langileek eguneroko lanean dituzten hizkuntza premiei erantzutea, eta prestakuntza orokorra baino gehiago epaitegietako lanerako behar dituzten baliabideak eskaintzea da helburua. Urtetan gaztelania hutsez lan egin izanaren inertziak gainditzea ez da lan erraza, eta horretara-

ko oso egokiak dira saio hauek, batzuk mintzamenen aurrera egiteko pentsatuak eta beste batzuk idatzari begira terminologia juridikoan sakontzera bideratutakoak.

### Agiri judizialak

Euskararen erabilera bultzatzeko aparteko garrantzia izan du agiri judizialak euskaraz normalizatzeak eta eredu elebidunak ezartzeak. Gaztelania hutsezko dokumentuak ordezkatzeko oso lan nekeza eta luzea da, agiri kopurua ikaragarria delako eta terminologia lan sakona eskatzen duelako. Horretan azpimarratzeko modukoa da euskarazko testu normalizatuak onartzen dituen batzordearen lana. Funtzionarioen lana errazteko 2006an lagundutako itzulpen sistema bat jarri zen abian, itzulpen memorien erabileran oinarritutakoa, datuak behin bakarrik sartuta eredu elebidunak ateratzea posible egiten duena.

Sistema hori azkenean JustiziaBat izeneko aplikazio informatikoan integratu da. Aplikazio hori pixkanaka ezartzen joan da jurisdikzio guztietan eta, oraindik barruti guztietara iritsi ez bada ere, ezarri izan den tokietan lortu dituen emaitzak ikusgarriak izan dira. Adibide batzuk jartzeagatik, Donostiako lehen auzialdiko epaitegietan %7tik %49ra egin du gora agiri elebidunen kopuruak JustiziaBat aplikazioa ezarri den lehen urtean, eta Gasteizko lan arloan, berriz, %16tik %79ra.

### Aplikazio informatikoak

JustiziaBat aplikazioaz gainera, badira beste batzuk ere aurrerapauso handiak ekarri dituztenak. Esate baterako, bake epaitegietan –barruti judizialeko buru ez diren herrietako epaitegiak– Epainet aplikazioa ezarri zenetik nabarmen aldatu da lan egiteko modua eta euskararen erabilera. 300 agiri inguruko corpus normalizatuak dago aplikazioan, eta

horrek euskararen erabilera idatzia kasu guztietan bermatzen du, funtzionarioen lana erraztearekin batera.

Aurten bertan ezarri den aplikazio berri bat aipatzeagatik, erregistro zibiletan erabiltzen hasi diren Inforeg dago, Ministerioak ezarritako eta guk itzultitako aplikazioa. Hemendik aurrera Barruti Judizialeko buru diren herrietako erregistro zibiletan inskripzioak –jaiotzak,

### Hemendik aurrera Barruti Judizialeko buru diren herrietako erregistro zibiletan inskripzioak (jaiotzak, ezkontzak...) euskaraz egiteko aukera dago

ezkontzak, heriotzak, tutoretzak– euskaraz egiteko aukera dauka herri-tarrak, eta baita ziurtagiriak euskaraz hutsez eskatzeko ere. Ministerioak ez du, momentuz, aukera hau herrietako bake epaitegietara hedatu. Horretan ere esan dezakegu mendetan baztertuta egon den esparrua irabazten ari dela euskara.

### Aurrera begira

Orain arte egindakoa biltzeko eta aurrera begira lan ildo berriak zabaltzeko, Jaurlaritzak 2008an onartu zuen Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra, 2008-2017 epean gauzatzeko pentsatutakoa eta euskararen erabilera sustatzeko neurri guztiak eskema sendo eta koherente batean biltzen dituen. Bost helburu estrategiko finkatu ditu plan horrek:

1.- Euskarari garrantzi gehiago eskaintzea, eta horri hedapena ematea. Euskara lan eta zerbitzu

hizkuntza gisa baloratzea da helburua, eta organo judizialean euskara egunerokotasunez erabiltzea lortzea. Horretarako, behar diren baliabideak esleitzeaz gain, berebiziko garrantzia ematen dio Planak gainerako instituzioekin adostasun handiagoa lortzeari.

2.- Herriarren eta profesionalen artean euskarazko zerbitzuen erabilera sustatzea, eskaintza ugartuz. Terminologia batzea eta hedatzea, agiri elebidunak bultzatzea eta justizia administrazioaren informatizazio prozesuan euskara txertatzea dira horretarako ildo nagusiak.

3.- Justizia Administrazioaren zerbitzuan diharduten funtzionarioen artean euskararen erabilera sustatzea. Puntu honetan berebiziko garrantzia izango luke hizkuntza eskakizunak esleitzera iristea, baina hori oraingoz, Planaren oinarrian dagoen Dekretua bera bezala, auzibidean dago eta erabakiaren zain.

4.- Epaile, fiskal, eta idazkari judizialek euskararen normalizazio-arekiko jarrera positiboa izan dezaten saiatzea. Oinarritzko adostasun puntuak lortu beharra dago ezinbestean justiziako eguneroko jardunean benetako protagonista diren eragileekin.

5.- Abokatuak sentsibilizatzea eta gaitzea. Abokatu elkargoekin erabilera planak egitea da asmoa, hizkuntza gaitasuna hobetzeko eta eguneroko lanean euskara erabiltzea erraztuko duten tresnak garatzeko. Lizitazio publiko kontrataturik, Emun, Ibermática, Indra eta Uzei enpresa berezituak gurekin ari dira egun, hizkuntza normalizazio lanetan.

Gauzak horrela, egindakoa sendotzeko eta etorkizuneko erronkei itxaropenez erantzuteko moduan gaudela uste dugu. ■

Babeslea: IVAP

"IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, ofizientegoa eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun ainarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-arioko euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legegari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza."

